

*Joan-etorria Hego Amerikan barrena:  
Argentina-Bolivia-Argentina  
Imanol Epelde eta Samara Velteren  
bidaiko testuak*

0

Oraingo koadernoan geratu zaizkit hiltzatuta hitz guztiak, sarerako jauzia noiz emango zain. Oporrak hartu dizkirate hitzek, Buenos Airesen, Argentinan. Eta ni ez naiz izango neure esanak behartuko dituen. Oporretan bainago ni ere.

1

Ihesaren eguna izan zen hegaldia hartu genuen igande hura. Ihesarena, ahazturarena, ibilbilde berri baten hasierarena. Etxetik motxila bete amets ateratzean, asko izan zirelako bidean utzitako ezinegonak, estuasunak, penak. Ihesaren eguna igandekoa, tren eta autobus geltoki eta aireportuetakoa. Hiruetan egin genuen denbora asko. Eta gustura. Hutsaz hausnarrean kezkarik gabe.

2

Hegazkinean eskuineko eserlekuan dudana Suitzan bizi den biolontxelo jole argentinarra da. Kontserbatorioko irakaslea omen. Eta osketraren bateko kidea. Nobela bat bizirik. Baina ni galdera interesgarriak egiten asmatu ezinik geratu naiz solasaldi laburrean.

*¿Cómo está la situación en el País Vasco?* galdetu dit. Eta ni zer erantzun ez nekiela geratu naiz. Ondo gaudela esan? Tinko jarraitzen dugula? Edo inoiz baino okerrago gaudela, inoiz baino inbadituago, inoiz baino makurrago. Diskurtsoaren premia larrian nago kanpo politika egiteko.

### **Hasi da abentura**

*Hegazkinean, 2009. 07. 06.*

Hasi da abentura. Orain arte urrun ikusten banuen 50 eguneko lasterketa honen irteera, nolakoa izango zen imagina nezakeen behintzat. Garai bateko gero lausoa oraina da jada. Eta etorkizunak ez du forma jakinik, ez kolorerik, ez doinu ezagunik - noizbehinka oihartzun baten moduan buruko pareten kontra talka egiten didaten hitz, izen eta adjektibo soil batzuek baino ez didate biharra salatzen: Bolivia... Indigenak... Kechwa... Hizkuntz ekologia...

Beldur apur bat diot bidaiari, nire txalupatxoak ozeano berri eta amaiezin honetan bide egokia topatuko ote duen zalantzan. Baina izan gaitezen positiboagoak: oporretara goaz lagunekin, oporretara lagun berezi batekin, eta orain horren lausoa dirudiena laster izango da nostalgiarako motibo. Horregatik, zenbait helburu jarri dizkiot neure buruari uda honetarako:

- Gerta daitezkeen ezusteko eta sopresetarako irekia egotea.
- Bidean topatuko ditugunengandik ikastea
- Neure burua apur bat ezagutzea: Nor naiz ni...
- Oporraldi honetako bizipenak ahalik eta zintzoen papereratzea, egunen batean argia ikusiko badute, egia izan daitezen.

3

Garbiñe Ubedaren *Mila ezker* liburua irakurri dut hegaldian. Eta Jimmy Hendrix entzuteko gogoia sartu zait eta Atahualpa Yupanqui.

Buenos Aires ezkerrarena izan da urtetan eta azken hauteskundeetan (orain bi aste eginak) eskuinak irabazi du. Europan bezala.

Eskuina eta ezkerria Ying eta Yang bezala omen. Oreka nola lortuko, Yinga nola Yangizatuko, zer pentsatu eta egin badugu. Bai.

4

"Han urrutian ikusten dituzuen etxe blokeetan pilatu dituzte porteño (Buenos Airestar) behartsuenak". Esan zigun anfitrioi lanak egiten ari zaigun lagun euskaldunak. Auzo haietara ezin gintezke joan. Ezta porteño asko ere. Behartsuen artean behartsuagoak ere badaudelako, hiriko mapetan ere agertzen ez diren kaleetan bizi direnak. Eta gu ez gara haiengana joango. Sartzen ez digutelako uzten.

5

Buenos Airesen ez dago griperik. Buenos Airesen hotz egiten du goizetan eta 18:00ak ez gero. Eta hiritarrak ume ttikiak bailiran tratatzen dituzte hau-hori-ta-hura ez egiteko kontzientziatzeko: kaleko karteletan, metroko metro bakoitzeko telebistetan, prentsan, irratan. Eta batzuk, gutxi batzuk aho maskarak jantzita ateratzen dira kalera eta pentsatzen dut sarri-sarri joango direla komun publikotan eskuak garbitzera. Baina ez dut inor ikusi belarritakoak jantzita eta begiak estalita kaleratzen. Txerri gripea baino birus arriskutsuagoak badira. Eta ez ditugu horien kontrako neurriak hartzen.

### **Lehen urratsak Argentinan**

*Buenos Airesen - 2009. 07. 07.*

Besoak zabalik hartu gaitu Buenos Airesek. Negua izan arren eguzki-izpi epeletan eskaini dizigu mateak, eraikin zaharren teilatuetan edan ditugunak, hiria geure azpian nola zabaltzen zen ikusten genuen bitartean. Buenos Airesen ikus daitezke lelo komunistadun horma-irudi zaharrak, fatxada erdi eroriak... Itsusitasunetik urrun, erromantizismo-kutsua ematen diote "Paris hegoamerikarra" deitzen dioten honi.

6

Imposible is nothing

esaten dit telebistak.

Imposible is nothing.

Eta nik tabernetan (ere) telebista itzaltzea zergatik ez den posible galdetzen dut.

7

-Eta zuek nola bizi duzue krisia? (nik)

-Krisia? Herrialde pobretuak beti gaude krisian. Hori zuen kontua baino ez da (Diego. Argentinarra)

8

Buenos Aireseko kaleak kakaz beteta daude. Zakur kakaz. Lurrera begira ibili beharra dago erregaloa zapatetan etxeratu nahi ez bada. Eta orain urte oso gutti Zarautzen ere halatsu ibiltzen ginela oroitzen dut, betiko zinegotzi polizialak *artículo 20/02* lege bihurtu zuen arte. Beti kexaka gabiltza baina lege zenbaitek usain eta asfalto faltsu batzuk salbatu dizkigute...

### **Buenos Airesen borroka**

Hiri handia da Buenos Aires. Europar antza duela esan arren, turismo internazionalaren prostibuluan bere burua oraindik guztiz saldu ez duena. Hiri harroa da, ipini dioten “3. munduko” etiketaz haratago bere izaera duina nabarmendu nahi duena. Eta batez ere, hiri bizia da Buenos Aires, bizia eta bixia; kultur-etxe, lokal okupatu eta kafetegi-liburutegi guztietatik suma daiteke bizi-gogoa, herrialde aberatsek jarritako mugak hautsi eta guztiongan bere txokoa borrokatu nahia.

9

Mobilik gabe nabil. Eta pozten naiz. Eta relajatzen naiz. Ez nago mundu birtualera konektatuta. Libre naiz. Azkenik.

10

Umorea. Umorez idatzi nahiko nuke. Umoretsua izan. Naizela erakutsi. Baina inpresioa dut seriotasunez jartzen ditudala azulejoak arkitektura lan hotzetan. Kike! Nik e umorez idatzi nahiko nike!

11

Gure gorputzek uda espero zuten eta negua eman diegu. Ameriketakoa gainera. Eskerrak betiereko udaberrian bizi nauzun. Zaitudan. Gaitezen.

### **Buenos Airesko gauak edo Trovadorearen kontakizunak**

Buenos Airesko gauak ditutu maiteen nik. Kultur-etxe okupatuetan izandako tertuliek, aurreko arratsean ezagututako lagun minek, 15 pesotako garagardo-botilek sentiarazten dute bat etxean bezala.

Herenegun ireki nion Buenos Airesi bihotza, *Casola* taberna okupatuan elkartu ginen talde bitxiari bezalaxe: psikologo txiletarra, zinemagile “porteño” malenkoniatsua (etxean txoko bat egin digun bera, portzierto), espainolez ikasi nahi duen yankia, honi adarra jotzen aritzen den (baina isilpean yankiarekin maiteminduta dagoen) neska argentinar irribartsua eta hiru euskaldun, bat iada erdi argentinizatuta eta beste biok aterrizatu nahian.

Irri eta mozkorkeria artean ezagutu genuen Silvio Rodriguezen kantuak abesten zituen kantari edo *trovadora*. Kitarra-doinu goxoen artean hamaika istorio kontatu zizkigun, berari kontzertutan suertatuak. Hona hemen hoberen oroitzen ditudanak:

1) Mutil lotsatu batek bere neskalagunari Silvioren *Te doy una canción* abestia eskaini nahi zion. Trovadoreak esan zion kitarrarekin oso trakets geldituko zitzaiola, eta errezita ziezaiola olerki moduan. Mutil gaixoa irakurtzen hasi, eta urduriaren urduriaz abesten amaitu zuen. “Desafinaba como un hijo de puta” esan zigun trovadoreak, “pero recibió el aplauso más cálido de la noche; lo importante no es cómo, sino de dónde llega.”

2) Neska batek abesti bat interpretatu nahi zuen. Trovadoreak kitarra eskaini zion. Neskak ukatu. Abes zedin, bada. Neskak berriro ezetz. Musikaria moskeatzen hasi zen: “Y qué vas a hacer, bailar?” “No” erantzun zion neskatilak, “voy a interpretarla en la lengua de los sordos.” Inoizko funtziorik hunkigarriena izan omen zen.

3) Cheren omenaldi batean, Ramón komandanteari zuzendutako abesti bat abestu zuen, Cheren izen klandestinoaren harira. Amaitutakoan mutil gazte bat gerturatu zitzaion. “Soy hijo de desaparecidos” esan zion, “nunca conocí a mi padre, y el único vínculo que me une a él es mi nombre, que me lo puso él: acabo de entender por qué me llamo Ramón.”

12

Argentinan muxu bakarra ematea da ohitura agurtzerakoan, eskuin masailean oro har. Izan mutil. Izan neska. Konbinazio guztitan. Kontua da bietako batek bakarrik gerturaten dituela ezpainak bestearen masailera. Bati, beraz, musua jartzea baino ez dagokio musua jasotzeko.

Hasieratik markatzen dira diferentziak horrela. Hasiera txar bat baino ez da erritua, biek masailak bakarrik jarri eta berdintasun kondiziotan hasten ez badute harremana behintzat.

13

Bihar astebete Zarauztik irten ginela. Esan didazu. Eta astea azkar pasa dela solastu dugu elkarrekin. Orain egun batzuk berdina esan zeindan. Hiru egun Argentinan gaudenetik. Eta orduan egunak pisu zitzaizkigun. Orduan bezain ondo gaude gaur. Baina egunak laburragoak dira.

14

Buenos Airestarrak, porteñoak tristeak dira oro har. Irribarre gutxi kaletan, propaganda karteletan ez bada. Buenos Airesen erresignazioa sumatzen da gehienengan. Eta gehienak tristeak izateaz gainera ez dira oso ederrak. Ez dut inongo neska edo mutil puxkarik sumatu inguruan.

### **GripeAz**

Duela hilabete batzuk idatzi nuen gripeAren kontua politikari internazionalak asmatutako ipuin bat besterik ez zela, populua krisi ekonomiko eta sozialetik distraitzeko. Gaur, esandakoa berresteaz gain, baieztapen berri bat gehitu nahi diot: gripeA populua beldurtu eta kontrolpean edukitzeko asmatutako ipuin bat da. Kontuan politikaren kiratsa urrutitik suma daiteke: ez da kasualitatea Argentinako futbol-finalaren eta hauteskundeen hurrengo egunera arte itxoitea gaixoak "uste baino ehun aldiz gehiago" zirela argitaratzeko. Egun batetik bestera Buenos Aires gripeAren aurka hartu beharreko neurriak azaltzen dituzten karteletan bete da: eskuak askotan garbitu, eztula egiterakoan ahoa estali, beste pertsonekin kontaktua saihestu... Eremu publiko guztiak itxi dituzte (arrazoi ona da funtzionarioek oraindik eta lan gutxiago egiteko), baita zinema-areto eta antzoki nagusiak ere. Hori bai, metroak gainezka darrai: ahoa estalita daramaten aurpegiz gainezka. Mundu guztiari desconfiantzak dirdir egiten dio begietan, inor eztulka edo doministikuka harrapatuz gero. Inor ez zaizu gerturaten ordua galdetzera, sua eskatzera, kartera lapurtzera... Jendea beldur da. Telebistako eta kaleko paneletako gezurrez kontajiatu dira eta ahaztu zaie hemen negua dela, eta "Gripe A" delakoa gripe arrunt bat ere izan zitekeela...

15

Ia bizitza osoa Argentinan daraman greziar agure batekin aritu gara hizketan. Postalak eta Mafaldaren kamisetak zituen denda bat zeraman. Damu omen zen Argentinara etorri izanaz Grezian zituen ondasunak utzita. Eta orain ez da inongoa. Herri minez bizi da atzerrian. Kanpotarra litzateke herrian. Eta bere alabek ikasketa unibertsitarioak amaitu eta Espainiara joatea du amets. Hartara, Espainiatik tartean-tartean Greziara joan ahal izango zuen behinola patuari emaniko biografia okertua zirkuluan ixteko ahaleginean.

16

Handia da lagunuen konpainia zerbeza basotan hurrengo egunean kopetari soka latz batek atzeraka tiraka ez balio.

17

Buenos Aireseko etorbide handi eta zabalena. 9 de Julio. 9 karril norabide bakoitzeko. Iluntzeko 9ak dira. Gautu du. 9 gradu baino gutxiagoko hotza. Eskalestriaren erdian zuhaitz bakarreko irla bat eta familia bat. Andre, 3 haur-neskatila ttiki eta aita. Pailasoz jantzita aita. Semaforoa gorrian irteten da errepidera eta malabarak egiten hasten semaforoa berdatzean autoetatik limosnaren bat jasotzeko esperantzan. Oinez pasa gara gu euren albotik. Guri ere "una monedita" eskatu digute. Eta guk ere ez diegu eman.

## Diego

Nekatuta esnatu naiz gaur. Eta ez da atzoko parrandarengatik. Atzoko festa edo "peña" nahiko eskasa izan baitzen, aurreko iluntzeko plana bezalaxe: ikusi nahi genuen antzezlanana bertan behera gelditu zen gripearengatik, eta pare bat zerbezaren ostean etxera etorri ginen.

Baina gauza jakina da unerik gozoenak gutxien espero dituzunean jotzen dizutela atea, eta halakoxea izan zen herenegun gaueko parranda, aspertuta etxera iristean Diego eta bere bi lagun gazte (Nicolas eta Bruno, zinemagintza-ikasleak) topatu genituenean. Giro ederra sortu zen boston artean, eta oso gustura ibili ginen Nicolas lotsatiarekin, Bruno berritsuarekin eta Diego interesgarriarekin hizketan.

Diego hitz batez definitu behar bada, horixe izango litzatekeelako: interesgarria. 42 urte ikusi dituzten begietan gaztetasuna nabari zaio, eta begi epelak dira, benetan. Beti esnatu berria dela dirudien itxura pasota horren azpitik mundu asko ikusi duen artista bat ezkututzen da, zerbeza baten konpainian mundu guzti hori gustu handiz konpartituko duena. Eta ni entzuteko desiatzen nago. Ezin izan dugu zorte hobea eduki etxea topatzerako orduan: Diegorenean primeran gaude.

18

Uruguaira heldu gara gaur. 09-07-13. Itsasuntziz heldu gara Buenos Airesetik. Colonia izeneko herriska batean gaude. Zittertal izeneko zerbeza edaten fruitu lehorrak lagun. Hiriko zurrunbilotik herriko patxadara egin dugu jauzi. Eta eskertzen da. Denborak ere deskantsu hartu duela ematen du.

19

-Y, ¿Vos cómo te llamas?

-Yo, Imanol.

-¿Manolo?

-No, Imanol.

-Bien. Imanolo...

-¡No! Me llamo I-ma-nol

-¡Ah! ¿Imanol? Como Imanol Arias.

-Sí. Arias se llama como yo. Imanol

20

Montevideon bizi da [Carlos Aznarez](#). Montevideon elkartu ginen berarekin. Ez luzaz. Palestinari buruzko hitzaldi bat hastear zen unibertsitatean eta agurtzeko denbora baino ez genuen izan.

Kontatu zigun Uruguayn euskaldunak asko miresten gaituztela, zenbait euskal errefuxiatu estraditatu nahi izan dituztenean kalera behin berriz atera izan direla...

Dagoen gauzarik handiena da herrien arteko elkartasuna. Joan etorrikoa baldin balitz behintzat. Ze, guk Uruguay non dagoen ere ez dakigu ia.

## Harrotasunaz eta harrokeriaz

Argentinarek harro-fama omen dute, batez ere hiriburukoek. Guk astebete egin dugu bertan, eta zintzoki diot ez dudala harrokeria-izpirik igarri. Edo ez behintzat argentinarren aldetik, baizik eta euskaldunongandik. Harro eta harrotuta sumatu dut zenbait lagun, etxetik, herri-minagatik aberria etengabeko hizketagai eta goraipamenerako arrazoi bihurtzeko ohitura gogaikarria hartzeraino.

Ni hura ahaztu nahi eta ezinean nabil. Benetako bidaiarik ezin du burutu beti etxera begira dagoenak, eta nik Euskal Herriaz askatu nahi dut, Hego Amerikan behingoz barneratzeko.

Badakit, euskararen egoera azaltzera goaz Boliviara, bertako indigenek euren hizkuntzaren hutsak geurean islatuta ikus ditzaten. Baina uneoro horretaz hizketan aritzea, afari bateko gai bakarra bihurtzeraino... gehiegizkoa egiten zait, saturatu egiten nau.

Etxeak gainezka egiten dit, horregatik etorri naiz honaino. Erroak askatu nahi ditut (benetan mota horretako errorik baldin badugu), hegan egin ahal izateko. Bestela gera nintekeen Zarautzen ere.

21

Bakarrik nabil Montevideoko kaleetan eta kafe bat hartu nahiko nuke. Baina ez dut tabernarik topatzen. Autobus geltoki batekin topo egin dudanean. Sartu naiz eta Frantziako Tourra telebistan. Azken 10 kilometroak ikusi ditut. Uruguayn etapak eguerdiko 12etan amaitzen dira. Irabazlea zein izango den Frantzia bertan baino lehenago jakiten da hemen.

22

3 egun eta 2 gau egingo ditugu Uruguayn. Denbora motza. Egun bat Colonial, 2 Montevideon. Hemen ere pobrezia gardena da. Turistak galbitzan lekuetan polizia turistikoa jartzen digutelako kezkarik gabe jan ditzagun hanburgesak eta edan zerbezak.

23

Evo Morales Uruguayn dabil egun hauetan. Eta gu ere bai. Baina gu ez gaitu presidentek hartu. Autobusetik jaistean ez genuen inor zain. Baina gu Montevideoko kaleetan eskutik helduta paseoa ibili gara, entsalada bat afaldu dugu eta [Splendidon](#) egin dugu lo. Hori bai, Boliviara iristean Evo Moralesek hartzen bagaitu, ez gara kexatuko.

## Colonia, Uruguay

2009. 07. 13

Uruguayra iritsi gara goizean, lurralde patxadatsu honetan bizpahiru egun egitera, Buenos Aires agurtu eta Boliviarantz abiatu aurretik indarberritzeko asmoz. Colonia herrixka kolonialean egingo dugu lehen gaua. Arratsaldea bertako kale koloretsuetan barrena paseiatzen eman dugu, Rio de la Platako labarretako harkaitzetan eserita, eguzki epeletan bizitzaz, denaz eta ezerrez hizketan. Bihar goizean motor bat alokatzeko asmoa dugu, kosta uruguayarraren zati bat ikusteko, Montevideo hiribururako autobusa hartu aurretik.

Kontatuko dizuegu han zer moduz ibili garen, baina momentuz ezin gusturago gabiltza kostaldean, hiriko trafiko eta zaratatik ihesi. Buenos Aires hiri ederra baita, baina hiria azken finean, eta Zarauzko Kale Nagusira ohituta dagoen batentzat nekagarria bihurtzen da azkenerako. Hori bai, jakin nahiko nuke nondik pasatu den gaur jende gehiago metro karratuko, Buenos Airesko 9 de Julio etorbidetik edo Zarauzko malekoitik...

24

Argentinara heldu berritan euro sorta bat peso argentinaretara aldatu genuen. Eta kalkulatu euro bat eta 5 peso argentinarrak diru kopuru bera zela. Peso argentinarrak eurotara ekartzeko zati bost egin eta kito.

Uruguayra heltzean kajero automatikoak peso uruguayarrak eman zizkigun. Eta kalkulatu euro bat eta 30 peso uruguayar diru kopuru bera zela. Zati 30 egin eta kito. Baina kontua ez da hain erraza ere: hiru txanpon klase ditugu poltsikoan eta laister laugarren bat izango dugu. Peso bolibiarra.

Egun beltzak matematiketan zeroa garenontzat, euroa besteen gainetik indartsu, harro, garesti egongo ez balitz

25

Montevideoko autobus geltokira gentozen. Kalez bestaldera kantu hots ozena entzun dugunean. Gizon bat zen. Gu bezalaxe oinez zihoana. Kantuan. Altu. Inbidia ematen zuen kantuan hain gustura ikusita. Kontajiatu egiten zuen bizi nahia.

Baina gehienok hartu dugu zorotzat, susmagarria delako oso, konplexurik gabe horren zoriontsu abesten duen norbait izatea. Ziudadean.

26

Buenos Airesetik Boliviara atera bezperan amaitu dut *Coaderno boliviano*. Liburua baino koaderno da Miguel Sánchez-Ostizen hau, Bolivian 2-3 hilabetez bizi-ikusikasiak papereratzen baititu: herri memoria eta historiari buruzko testigantza jasoaz, kronika poetikoak tartekatuz, bidaiari ibiltzearen eta batez ere, bidaiari bakarrik ibiltzearen izan dituen gogoeta kritikoak eginez. Zenbateraino ezagutu daiteke herri bat betaurreko (eta batez ere poltsiko) europarretatik? Zenbateraino Lonely Planetetatik edo bidaiari agentzien ofertetatik?

Jendeak gauza handiak esan dizkigu Boliviari. Liburu handia da koaderno hau. Bidaiari handia dugu aurretik.

27

Juan de Garayk fundatu zuen Buenos Aires, Zabala abizeneko batek Montevideo, Madariaga izena du Argentinako herri batek...

Herriko enparantzetan monumentu gorenak eraiki dizkiete garai batean Oñatitik, Markiñatik edo Peraltatik etorri eta Amerikak kolonizatu zituzten otso hauei. Hiriak eurek fundatu zituztela diote oroigarrietan, aurretik leku horietan inor bizi izan ez balitz bezala, Ameriketako historia kristo ondoren beharrean, euskaldun zenbaiten ondoren hasi izan balitz bezala.

## **Tucumanerako treneko gogoetak**

2009. 07. 17.

Tucumanerako trenean, Argentinako iparraldera bidean gaude jada. Imanol eta ni elkarren aldamenean goaz, pullman klaseko lehen ilaran. Atzean telefonoari itsatsitako bi oilo tokatu zaizkigu, eta pasiloaz bestaldera Axi dago, iada lagun duen amona batekin. Berehala hasi dira hizketan, eta laster sartu da amona terreno arriskutsuetan: Asier katolikoa den, sinestuna behintzat... Nik eztabaidaren zati bat entzun dut, bertan parte hartzeko inolako gogorik gabe baina bai kontua beste behin neure buruarekin eztabaidatzeko: badago jainkorik? Sinestu nahi dut jainkoarengan? Lehen erantzuna ezezkoa da, noski: atzerakoia da, ez dago modan horrelako gauzetan sinestea. Eta indar goren menderatzaile batean sinestea kostatzen bazait ere, bada indar berezi

bat geure bizitzako hariak mugitu ez, baina bai lotzen dituen: zerk sortzen du bestela, bi pertsonen arteko harremana, zergatik topatzen dira justu bi horiek, 6 bilioi pertsonaren artean eta auskalo zenbat kilometro karratuko lurrazal amaiezinean, ez topatzeko aukerak askoz ere handiagoak baziren? Zerk ekarri gaitu ni eta Asierren aldameneko amona egun eta leku berera? Zerk sortzen du bi pertsonaren arteko "konexio" delakoa?

Jendeak kasualitatea deitzen dio, kontuari garrantzia kenduz bezala. Kasualitatea, jainkoa... termino abstraktuak dira, eta badut susmoa gauza bera esan nahi dutela.

28

Tren guztiak desagertu omen ziren izendaezinaren, Menem lehendakariaren garaian, etorkizun oparoaren izenean gizarte segurantza ere pribatizatu zuenean. Baina oraindik bada Buenos Airesetik Tucumanera doan tren bat eta huraxe hartu genuen Boliviara bidean.

Goizeko 10:30etan igo ginen trenera. Bidean, Rosario izeneko hirira 17:00ak aldera iritsi ginen azken ordu erdia ojalatazko eta uralitazko txabola-zabor-miseria gorrienen zeharka egin ostean. Harrika hartu gintuzten. Mutil koxkorrek harriak bota zizkioten trenari, palestinarrek tankeei bezala. Eta gu espektakuluak hunkitu gintuen gauak pobrezia ikusezin bihurtu zuen arte.

29

Gautzean Eduardo Galeanoren "Las venas abiertas de America Latina" liburua irakurtzen jarri gara amorrazioz, pausatuki, trenaren mugimenduak kulunkan. Liburua eleberri bat, beste eleberri arrunt bat izatea desiratu dut. Baina ezkututzen diguten errealitatearen eta gezurtatu diguten memoriaren kronika da liburua. Gordina, odolezkoa, injustua.

1970ean argitaratu zuen liburua. Gaitzerdi azken 40 urteetan historia berridatzi nahi izan baldin bagenu. Baina ez, gizon zuriaren historia liburu beltzari ez zaio puntu eta aparterik berehalakoan jarriko.

Guri dagokigu beste historia bat idaztea. Ez daukagu dagoena salatzeraz soilik mugatzerik.

30

Buenos Airesetik 10:30etan atera gara eta Tucumanera 10:30etan heldu. 24 ordu trenean. Errekor pertsonala jarri dugu Argentinan. Erdi eserita, erdi etzanda egin dugu lo. Eta aitortzen dut aurreneko aldiz gaur amestu dudala nire etxeko ohearekin. Inoizko postura egokiena topatu ezinik nire ohe zabal goxoak kastigatzen ninduen ametsetan, bera abandonatu izanaren mendekua hartu nahi izango balit bezala.

31

Rosarion bezala Tucumaneko tren geltokira heldu bidean espektakulu gordina. Zabor txabola artean miseriak oka egin digu gehiago ezinda. "La Gaceta" egunkariak dio Argentinako ekonomia atzeraldian sartzeaz dela. Pobretuta dago herri hau. Pobretuago laister.

Autobus geltokian, inon ez bezala, txanpon truke funtzionatzen hasten den telebista makinak daude eserlekuetan. Itxaronaldia eta errealitatea anestesiatzeko.

32



Country izeneko auzo hesituetan bizi dira aberatsenak Argentinan. Country da gurea ere. Basque Country. Gurea ere poliziak harresitutako herria da eta Visa ondo bete behar da bertan bizi ahal izateko.

33

Trenez 24 ordu eta autobusez 6 eginda Jujuyra iristear gaude. 21:44ak dira eta neka-gose-zikin sentitzen gara. Orain hostala bilatu behar, dutxatu, afaldu eta lotara. Eta bihar akaso bidaian segiko dugu. Boliviako Potosi hirira iristeko 15 ordu beharko omen ditugu autobusean. Asko? Bai. Baina bizioa ere hartzen zaio bidaiari, kristaletatik herriak eta jendea kontenplatzeari, inoiz gautuko ez balu eta autobusetik jaistean, 2 ordotara ere, lurak azpitik ihes egiten digula irudituko ez balitzaigu.

34

Lanean opor egunak amesten dira: despertadore gabeko goizak, presarik gabeko ilunabarrak. Opor egunetan aspertzen ahaztu zaigula berrikasi behar dugu eta desiratutako bazkari pasa koipetsuak eta postre gozoak aski ez direla antsiatutako zoriona lortzeko. Gaur bezala. Jujuytik Tilcara herrira igo gara 2000 metrotara: herri ondare historikoduna, mendi eta inguru galaiak... Baina bazkalostean zer egin jakin gabe geratuko gara opor egun desiratu horietako batean. Bolivia salbazio, bihar iritsiko gara.

### **Bolivian jada.**

Boliviara iritsi gara gaur. Argentinako iparraldea atzean utzita, Villazonen gaude, Boliviako lehen herrian, eta ordu erdi barru egingo dugu alde, Uyuni aldera, bertako gatzadi ikusgarrietara heltzeko asmoz.

Egunero mundu berri bati irekitzen dizkiogu begiak: Buenos Aires europarretik, Jujuy zahakitua pasa eta Bolivia indigenara. Aurpegi berriak dira hemengoak. Eta denbora ez da existitzen lur hauetan: hau autobusetako gidariak ongi erakutsi digute, 2 ordu berandu iristeraino. Baina kaleetan ere nabari da: 80. edo 90. hamarkadak gogorarazten dizkiote bati hemengo eraikinek. Bolivia denborarik gabeko lurraldea da.

35

La Quiaca herrira heldu gara. Argentinako mugako azken herrira. Igual igo ditugu 2.000 metro autobusean kolpera. Paisaia mortua, harroa, lokatzezkoa. Eta parez pare dugu Boliviako lehen herria: Villazon.

Muga ibai batek bereizten du eta zain gaude ilara luzean Bolivian sortu eta Argentinan bizi den senar-emazte batekin Argentinaz hizketan.

Azken urteetan egoera ekonomikoak behera egin duela dio senarrak. Diktadura garaiak izan omen ziren onak: autopistak egin eta industria berpiztu zenekoa.

Ni mutu Galeanoren liburua besapean. Sinestuta diktadura hura eta hura bezalakoengatik daudela Argentina eta beste leku asko miserian. Baita arlo intelektualean ere.

36

20an. Uztailaren 20an zapaldu dugu Boliviako lurra estrainekoz. Azkenean. Ez gara belaunikatu musu ematera, haizeak musuratu dizkigu hauts eta lurak gupida gabe. Gripea genuen edo ez jakiteko medikuarenetik pasa behar omen genuen lehenbizi. Eta han pasa gara eta entzun ditugu aholku zenbait, gripearri nola aurre egin jakiteko. Eta ondoren beste paperen bat beteta eman digute sartzeko baimena.

Bolivian gaude azkenean. Seilu bat irabazi dugu eta neguko txaketa lodi bat galdu haizeak eramanda. Visa txartela ere izorratu zaigu. Eta hori gauza serioa da. Baina Bolivian gaude eta Uyunira joateko trena hartzen saiatuko gara. Nola edo hala.

## **Boliviaren ongietorri gazi-goza**

2009. 07. 21

Uyunin gaude azkenean, munduko gatzaga handienetik kilometro batera. Villazonetik gaueko ordubietan iritsi gara, amesgaizto bat izan zitekeen treneko bidaiaren baten ostean: amesgaizto bat, baldin eta lorik egin ahal izan bagenu!

Desertuan dago Uyuni. Eta guk hiria bera ere desertua, hilda topatu dugu: argindarrik gabe, hotz, eta arnasa hartzen ere uzten ez dizun hauts eta hondarrezko ekaitz beldurgarri batek astinduta. Gazitik gehiago dastatu dugu, gozotik baino. Eta ez da gatzagan egindako egunpasagatik.

Egur handia ematen ari zaizkigu etengabeko bidaiak, klimak eta altuerak (gaur 3000 metro, bihar 4000...), eta jada hasi zait faktura pasatzen: tripa nahastuak eta buruko min galanta, sukar apur bat ere bai akaso. Gorputzak deskantsua eskatzen dit, baina mota honetako oporretan badirudi beti dagoela ikusi beharreko zerbait, etengabe mugimenduan egoteko obligazioa.

37

Trenean 10 ordu egin ditugu Villazonetik Uyunira. Amaiezinak denak. 15:30etan atera da trena eta ilundu bitartean inguruaren lekuko mutuak izan gara. Eta ilundu duenean zeharkatzen ari garen lurra imaginatu ditugu trenak argitzen zituen mugak tentatuta. Argiak, sarri, erakusten duena baino askoz gehiago ezkututzen du.

38

Erik izena zuen. Trenean ezagutu genuen. 19 urte. Ekonomia ikastera zihoan Oruro hiriburura bere herriskatik. Baina berak militar izan nahi omen zuen: sarjento. Zergatia galdetu genion; boterea erantzun zigun. Armek boterea ematen baitute visaren indarririk ez dutenentzat.

Eta hala ere, ezin omen zuen militar izan. Garestia delako. Azterkerta bat gainditu behar delako 3.000 boliviano ordainduta. Guk bi ordu lehenago kajero automatikotik atera genuen diru kopuru bera ordainduta alegia.

39

Hotza. Hezurretarainokoa. Ikutzerainokoa. Eta haizea kalean. Bakarrik. Gu Inti izeneko hotelean Uyunin, Bolivian. Baina eguzkitik, intitik, eguzkiaren berotik gutxi du hotel honek. Ura berotu ezin, berogailurik ez.

Argia. Energia deitzen diote hemen. Argirik ez dago herri osoan. *No hay energia*. Noiz arte? Ez dakite. Egun bat, bi, hiru.

Buenos Airesetik Boliviako Uyuni herrira iristen lau egun pasa ditugu eta 3.000 metrotatik gora gaude. Bidaiarekin nekatuta gaude. Eta izotzezko siestaren ondotik hitz izoztuak datorzkigu. Asmatu ezinik intia desagertzean zein eguzkik egingo digun argi eta emango beroa iluntzean.

40

Itsaso bat gatz zeharkatu dugu gaur. Munduko gatzaga handiena omen Salar de Uyunikoa. 4x4 batean eramane gaitu txoferrak 8 lagun. Gatzagara iristean gatz piloak egiten lanean ari ziren zenbait herritar. "La gente es mala" esan digu txoferrak. Jendeak lanean ari zirenei ateratzen zizkielako argazkiak. Haize izoztu eta eguzki erretan

izerditan osatutako pilo gainera igota ateratzen zituelako argazkiak jendeak. 4x4tan iritsi garen turistak gara jende hori. Besteren lana ikuskizun bihurtu dugunak.

41

Uyuni turistaz josita dago. Herriko kale nagusietan bertakoak gutxiengo izateraino. Umeek zerbitzen dizkigute bazkariak eta saltzen autobus txartelak. Eta hain justu, autobus geltokian egin dugu topo Txiletik etortzekoak ziren beste 4 lagunekin. Orain arte Samara, Asier eta neroni genbiltzan bidaiari. Orain Ainhoa, Ainara, Oihana eta Xabi ere bai. 7ak bat egin dugu. Ia 4.000 metrotara, jauzi eginda 7 puntako izarra zintzilikatu dugu kutsadura luminikorik gabeko Boliviako zeruan.

42

Turisten preziora eta neurria eginiko jatetxetan edo taberna ez-lekuetan sartzen garenean edo turistak engainatzeko soilik prestatutako museoetan paseatzean edo pelikula estatubatuarrak ikusteko zinera sartzen garenean Boliviatik irteten gara.

43

Gatzezko lurra bidaitu ditugu Uyunitik Potosira bidean. 6 ordu autobusean. Mendi garai elurtuak urrunean, lur erre koloretsu lehorrak, lokatzezko herriak burdinezko herritarrekin hotzetan eguzkitan altueran. Asfaltatu gabeko bideetan errebuelta bakoitza zen postal bat. Batean bilduta bidaltzen dizkizuet Potositik.

## **Potosin**

*2009. 07. 23.*

Oraintsu iritsi gara Potosira, 4100 metro inguruko altueran dagoen kapitalera. Lehen impresioa nahasgarria izan da, kaotikoa, estutasunezko: 7 lagun taxi arrunt batean etorri gara hotelera, bakoitzaren motxila puska eta guzti! eta estutasuna, hiri honetan oxigenoa dirua bezain urria delako, eta aldapatxo bat igota jada amasestuka nagoelako, 18 urteko amonatto baten antzera. Ohituko ahal gara inguruotara!

Bihar emango dugu lehen tailerra hemengo kechwekin. Gehiegi prestatu gabe goaz, sorpresetarako irekia... Nik behintzat argi daukadana da ez noala misiolariarena egitera, eta nahiago dudala beraiengandik ere ikasi. Ikusiko, eta kontatuko...

44

Orroea. Burrunba. Leherketa. Ketxueraz Potosi. Edo hobeto: Potocchi. Diotenez (Galeanok ere hala kontatzen du) mendia inkek ustiatzen zuten garaian ahots oihu bat entzun zen: mendi hura euren ez zela zioen eta jabeak laster etorriko omen ziren. Handik gutxira etorri ziren espainiarrak gurutzeak ezpata. Oraindik ere Potocchik potocchi egiten du historiaren gezurrik amorratzeko eta lapurreta guztiak madarikatzen.

45

Europako indigenak garela diogunean Potosiko lurra orro egin du enegarrenez. Hemengo lurra ez du ulertzen ez onartzen horrelako indigenismorik.

46

Potocchi eskualdeko hezkuntza arduradunarekin bildu ginen eta 37 nazionalitate dituen estatuak zein curriculum eta konstituzio berri duen azalduko digu laster, nazio guztiek

biziraun dezaten nazio berean. Gu baino aritmetika kultural konplikatua goak dituen herrik bada, 3 urmaletako formula matematikoak asmatu ezinean ibiltzeko.

### **Potosiren distira**

2009. 07.25.

Potosi munduko hiririk aberats eta populatuena zen behinola, inguratzen duten mendietako mineralen iturri. Espainol lapurrak iritsi aurretik bertako kaleak zilarrez estaliak omen zeuden, eta alegiak dio minetatik ateratako guztiarekin Espainiarainoko zubi bat egin zitekeela zilarrez, baina baita hezur hutsez ere, harri artean hildako 8 milioi indigenen hezurrez. Argi dagoena zera da: espainolak pasa ahala zilarrezko zubi osoa desegingo luketela, Boliviari pobretuek euren zapata distiratsua zikin ez zitzaten...

47

Ruthek esan digu. Potosin gure agenda lotzen ibili denak. Potocchiko kaleetan dabilzan 10 lagunetatik 8k dakiela kexueraz.

-Baina, guk ez dugu-eta kalean inor kexueraz hizketan entzun!

-Ez, kalean ez du inork hitz egiten kexueraz

-Etxean orduan?

-Ez, etxean ere ez. Inork ez du etxean egiten, nekazari herri txikietan ez bada.

Zaharrek badakite. Umeez ez. Guk dakiguna da egoera alarmantea dela hemen. Oso.

48

Orain arte Boliviari hizketan bi boliviarekin aritu gara. Bat Ruthekin, gure hemengo agenda osatzen aritu denarekin. Evo Moralesen alde eta kontra hitz egin du, batez ere esanez, "klase media" deitzen duena (indigena eta aberats jendea ez den oro) baztertu duela, indigenen fabore handiegitan eta instituzioetako ustelkeria salatuz. Evo Moralesen partidukoak ez direnei atak itxiz.

Bestea bart jatean zerbitu gintuen boliviaria da, klase mediarik ez dagoela esanez, Evoren politikak sutuki defendituz.

Hasieran dena sinestu genion Ruthi. Ruthen esanak zalantza jarri zituen tabernariak.

Hirugarren bat, laugarren bat beharko dugu kontrastean ondorioetara iristeko, bakoitzak bere Bolivia erakutsiko digula jakitun.

Irudikatzen eta deskubritzen dugun zerbaiten artean egon liteken benetako errealitatea.

### **Tabernariaren kontakizunak**

2009. 07. 25.

*"El campesino ya no será el mismo nunca más; El Cambio es inevitable, irreversible."* Kasualitatez Potosiko kaleetan topatutako taberna bateko jabe Evozalearen hitzak dira, pasio handiz bere hizkuntzaz, ohiturez eta joera politikoez ari zitzaigula. Eskuetako mugimendu anitzek kulturaz jantzitako gizona dela salatu digute; hizkera argia, dotorea erabili du. Munduan ibilitakoa da, eta ez zaio karakterrik falta:

"Españoles? A qué han venido, a la reconquista?" batekin agurtu gaitu, eta ez digu barkatu gu ere herri konkistatu batetik gatozela azaldu diogun arte. Orduan hasi da hitz-jarioa: ba omen dela inguruko festetan heriotzeraino borrokan jarduten diren sakrifiziozko tradizioz, kristautasunaren kutsaduratik ihesi Ama Lurrari, Pacha Mamari omen egin nahi diona; prentsa guztia Evoren aurka konspiratzeak sortzen dion amorrua; Boliviako klase ertainak aberaskumeetara jotzen duela, eskuineko

alderdietara, baina Evok nekazal jendeari atea ireki dizkiola, eskubide eta betebeharez informatu eta euren ortzimuga zabaldu; gobernua aldatzen bada ere ez dela atzera bueltarik izango, herri indigena ez dela gehiago lehen bezain manipulagarria izango. Inork ez du botorik emango bi txorizo-muturren truke. Nire gusturako diskurtso idealizatu egia izan bada, ezin uka pertsona ezin interesgarriagoa topatu dugula garagardo baten aitzakiaz. Trago batera gonbidatu dugu, eta topa egiterakoan inoizko kanturik ederrena erakutsi digu ketxueraz:

49

Qhampaj  
ñoqhapaj  
mana jayqac  
qon karikunapaj

Zuengatik  
niregatik  
une honetaz  
inoiz ez ahazteko

50

Munduan altuen dagoen hiria omen da Potocchi. 4.200 metro. Denek sentitzen omen dute ondoezen bat hona iristean, batez ere altuerak eta batez ere hotzak eraginda. 5 gau egin ditugu guk. Eta igarri ditugu hotzak, buruko minak, tripa nahastuak. Baina gu bagoaz. Bertan geratu beharko dute behinola lur aberatsak izan ziren lur pobretu eta hiritar pobretuagoek.

51

Potocchin hotza Oruron atea zabalik uzten dutelako egiten omen du. Orurora goaz gaur bertan. Atea ostia hori ixtera.

52

Astelehen goizean ginen elkartzekoak goizeko 8:30etan Potocchi departamenduko pedagogia arduradunarekin. 9:30ak arte itxaron genuen. Azkenean ppt miserable batzuk inprimatu eta haize hotza hartzera bidali gintuen. Hemengo errealitate linguistikoaz ikasi nahi genuen. 37 nazionalitate nola biziraungo dituen konstituzio berriak, curriculum berriak. Oraingoz irudikatu baino ezingo dugu egin, hurrengo herrian azalpenen bat emango digutelakoan.

### **Brasildar batek Boliviari bati...**

- Qué poco sentido tiene que ustedes tengan un ministerio naval!
- Pues ustedes tienen uno de Justicia...

53

Kalabazak jaso genituen egun berean Potocchiko 80 bat eskola zuzendarirekin tailer bat egin genuen gure hezkuntza esperientzia sozializatzeko eta hizkuntz berreskurapenean izan ditugun ezagutzak jakinarazteko. Alarma sortu nahi izan genuen. Hizkuntza asko daudelako galtzear Bolivian. Ardura eman nahi izan genien. Euren erresponsabilitatea baino ez baita hizkuntza hurrengo belaunaldietara ondorengoetaratzea. Eta esperantza. Egin litekeelako, bideak badaudelako egoera irauli eta lurrari arnas ematen dioten hizkuntzak biziberritzeko.

54

Hizkuntz ekologiarri gabezia bat ikusten diot. Garai okerretan sortu izana. Ekologismoa diskurtso instituzional eta pertsonal huts bihurtu eta lurra asfaltoka iraintzen dugun garaiotan, koherentziarik gabeko teoria da. Izatekotan bizimodu jasangarria izanda du zentzua; lurrarekiko, hizkuntzekiko, geure buruekiko.

55

Iraingarria da hemengo bizi kostua guretzako. 3 eurotan egiten dugu lo, afari ederrak 5 eurotan, taxia hartzea euro bat baino ez da kostatzen... Hemen guretzat ez du ezerk preziorik. Geure buruak ez bada.

56

Etxean milimetratuta izaten dugu jokaldia. Esnatu orduko joaten gara begiak erdi itxita. Lantokian pare bat alditan. Eta iluntzean oheratu aurretik behin bai gutxienez. Gorputza eguneroko joanaldi horietara ohitzen dugu. Guztizkoa da komunarekiko mendekotasuna.

Areago etxetik kanpora gabiltzanean. Baina horrelakoetan ez da erraza izaten gorputzak eskatzen duen guztietan lortzea komuna. Inongo bidaiak gidetan azaltzen ez den arren, gorputzarekin bakeak eginda ibiltzea ezinbesteko baldintza da egunaz, jendeaz, hiriaz gozatuko bada. Areago beherakoarekin-edo bagabiltza.

57

Potosi utzi genuen Oruro helburu, beste hiri mehatzari bat altiplanoko lautada lehorrean, mendi gorri baten magalean. Orurora heldu baino lehentxeago ur terma batzuetan geratu ginen. Pazñan. Garai bateko sumendiren batek urak irakiten lurazalaratzen zituen. Eta uralitazko teilatudun eraikin urdinean elkarrekin bainatu ginen zu eta ni. Usain onik ez, garbitasun sobera ere ez. Baina aspaldian sentitu gabeko berotan egin genuen bat 3 astetako hotzak eta altuerak eragindakako txorabioak ahaztuta.

58

Lo egiteko aukerak asko dira Oruron. Kaleak, Residencial izenekoak, hostalak, hotelak... Hortxe ibili gara gure neurriko, gure gustuko lotokia aurkitu nahian. 4 gau egingo ditugu gutxienez eta leku ona topatzeak berebiziko garrantzia du. Hostaletan galderak beti dira berberak: zenbat da gau bakoitza buruko, berogailurik bai, ur berorik, logelak ikusterik bai, toailarik? Erantzuna ia beti eta ia galdera guztiena izaten da baiezkoa. Baina goizetan jaiki eta dutxatzeko manilari eragitean... mirari bihurtu da ur berotan dutxatzea. Batzuetan Visa ere oparituko nuke goizak ondo hasteagatik.

59

Iritsi da egiaren ordua. Oruroko prefekturara, diputazio modukora heldu gara goizean goiz. Bileran zeuden ordurako Oruro departamenduko indigena zenbait eta Kawsay (Universidad Intercultural Indígena y originaria) erakundeko langile zenbait. "Los hermanos vascos" deitu digute eta banan bana norbere buruaren aurkezpena egin dugu. Familia bat osatzen dugu eta errito bidezko zeremonia batekin bataiatu eta zelebratu dugu momentua. Koka ostroak 96 graduko alkoholetan bustita mastikatu ditugu. Eta %100ean bizi dugu momentua.

60

Bileran bakoitza norbere buruaren aurkezpena egiten ari ginen: izen-abizenak, lanbidea, kargua... Bilerako kide batek bere aurkezpena nola amaitu zuen gustatu zait, besteok baino denbora gehixeago pasa ostean bere buruaz hizketan: "solamente, seria todo eso". Ederra.

61

Bolivian 2 komunitate handi bereizi daitezke gutxienez. Indigenena da bat eta gainontzekoena bestea. Nahiz eta erdi indigena erdi txuri direnak ere badauden, nahiz eta diru kantitateak ere komunitateak bereizten dituen. Haustura hausturaren gainean. Arazo bihurtu da hori Bolivian.

Esaterako, orain urte batzuk indigenak Estatuko unibertsitateetara joaten ziren. Baina han ez zuten euren kosmobisioaren araberrako ikaskuntzarik jasotzen, mendebaldeko ikuspegikoa ez bazen. Orduan, ikuspegi indigena Estatuko unibertsitateetara txertatzea erabaki zuten. Baina protesta handiak sortu ziren txurikumeen aldetik. Azkenean, indigenek euren unibertsitatea sortzea erabaki dute Gobernuaren laguntzaz. Hortik Kawsayren bidez sortu den UNIC. Bizi luzea unibertsitate martxan jarri berriari. Badu nahikoa lan. Bolivia izeneko puzzlea nola osatu jakitea besteak beste.

62

Orain arte ezagutu ditugun lagun guztiak dira Evo Morales zaleak. Oruro departamenduko herriska batekoa da Evo, eta quechueraz eta aymaraz daki gaztelaniaz gain. Horrek evozaletasuna muturreraino esajeratzen du. Euren esperantza bakarra Evo izateraino, ardura ia denak Evorengan uzteraino. Evo Amerikan gaude. Dudarik gabe.

### **Boliviari indigenen kosmobisioaz**

Lau egun egin ditugu Oruron, hitzaldi eta bilera interesgarri baina nekagarri betetako lau egun. Bertako indigenekin elkartu gara, UNIK Unibertsitate Indigena aurrera eramaten ari diren eta hezkuntzan diharduten bestelako buruekin: geure aurkezpenak erantzun eskasa izan bazuen ere, sortu dugu harreman bat, hartu-eman bat, eta guk ere hartu dugu.

Hemengo indigenak oso harro daude euren tradizioaz, kulturaz, sinesmenez. Kosmobisioaz. Atzo goizean elkartu ginen Romanekin, gure koordinatzailea behar zuenarekin (esan beharra baitago antolatzaileen aldetik jaso dugun arreta minimoa izan dela), eta euren herriko kosmobisioa azaldu zigun laburki. Hona hemen apuntatu nituen puntu batzuk:

Kosmosa 4 elementuz osatuta dago:

1. Pachakama: Unibertsoa, izar artekoa.
2. Pachamama: Komunitate naturala, lurra, urak, animaliek, landarediak, klimak, paisaiak eta lur azpikoak osatzen duena.
3. Jaqui: Giza komunitatea, herri desberdinetan familiatan antolatua.
4. Jilarata: Wak'a, Samiri, Illa, Achachila eta Apu dibinitateek osatutako komunitate sakratua.

- Ama Lurra, Pachamama, geure ama da, eta geure ama propioa salduko ez genukeen moduan, ez dugu Pachamama merkantzia bihurtu behar.
- Pachamamaren baitako, gaineko eta kanpoko guztiak du bizia, pertsona baten antzera, eta pertsona baten antzerako erreakzioak izan ditzake: haserretu daiteke, lagun diezaguke...

- Ez dute bakean sinesten, armonian baizik. Bakeak gelditasuna, estatikotasuna esan nahi du. Baina armonia ere kontzeptu abstraktu samarra da...
- Eguzki-sistema atomo baten moduan antolatuta dago.
- Planeta bakoitzak erdigune baten inguruan biratzen du, gizarteak bezalaxe. Planetek, elektroiek bezala, ez dute sekula euren bidea ("Thakhi") galtzen, eta armonian dabilta, inoiz talka egin gabe. Gizarte ordenatu, armoniatu bat osatzeko bakoitzak bere bidea jarraitu behar du. Baina guztiok dakigu gaur egun nork erabakitzen duen zein den bide egokia, eta indigenei ez zaie ba komeni bide horri gehiago heltzea...
- Mundua orekatuta mantentze dadin guztiak binaka antolatuta egon behar du, ar eta eme. Gizonak emakumea osatzen du, eta alderantziz. Hau naturako elementu guztietan ematen omen da, eta giza- eta familia-harremanetarako ardatz nagusia da.
- Homosexualitateaz eta askatasun sexualaz ez zuten hitz egin nahi izan. Gizon-emakumeen rol tradizionalak itsuki defendatzen dituzte, "porque si no la libertad se convierte en libertinaje". Nahiko ikuspegi katolikoa, nire iritziz.

Agian gehiegi kuestionatzen dut, kritikatzten dut ikuspegi europar batetik. Baina tradizioari horrebesta eusten badiete ederki kostatu behar zaie euren unibertsitatea gaur egungo beharretara egokitzea.

Bihar La Pazera goaz. Handik idatziko dizuet hizkuntza-tailerrez eta hemengo hizkuntzen egoerak eragin didan inpresioaz...

63

Arrazoi dute indigenek. Estatu geometria politiko guztiak dira gezurrak, estatu antolamenduak inposizioak diren era berean. Euretako asko ez dira boliviarrak edo peruar sentitzen. Euretako asko aymarak dira, edo quechuak edo guaraniak. Eta kitto. Horregatik hasi dute Bolivian orain arteko departamendu eta udalerririk egitura gaituriko duen politika autonomikoa. Euren dioten gisan, Boliviako nazio guztiek oxigeno gehiago izan dezaten, momentuz, estatu bakar baten barnean bada ere.

64

Ekvadorreko lurretatik etorritako quechua batek aipatu zigun: indigenen arteko topaketa batean Kolonbiako indigena bat ondorezik sentitu zela tripetako minez. Coca-Cola bat eskatu omen zuen minak arintzeko. Eta berak esan omen zion zergatik ez zuen infusioaren bat hartu edo koka murtxikatu Coca-Cola hartu beharrean. "Si no somos honestos con nosotros mismos, como hablaremos de otras cosas". Gure taldean ere bada diskurtso anti-inperialista. Baina aurrekoan gutariko batek Coca-Cola bat eskatu zuenean bazkari lagun gutxik eutsi zion Coca-Cola probatzeko tentazioari. "Si no somos honestos con nosotros mismos..."

65

Hemen ordua ez da o'clock. Hemen ordua ordu erdiko tolerantziarekin hartu behar da norbaitek zitarekin bat egitean. Edo gehiagorekin. Hala gertatu zaigu guri behintzat. Oporretan egon eta presarik ez izateak ere ez du arintzen batzuetan, itxaron beharrez zama.

66

Andeetako kosmobisioa azaltzen aritu zaizkigu gaur eta gu, europar txuri beti eredugarriok, gure aritmetikara makurtu nahi izan dugu milaka urteetan eboluzionatu



duen mundu ikuskera. Hortxe aritu gara ahulune bila, non eroriko zain, eurenetik ikasi eta interesgarriena hartuta geureari gehitzen asmatu beharrean. Kolonoak izaten darraigu!

### **Boliviari autobusak**

Horrenbeste joan-etorri luuuuuzeren ondoren, merezi zuten hauek ere txoko bat. Ez bereziki erosoak edo politak direlako (are gutxiago autobus argentinarrak ezagutu dituen batentzat), kontrako guztia: ordu eta erdiz zain eduki izan gaituzte, txartela ordaindu eta pasiloan bidaiatzea tokatu izan zaigu, eta bidaia bakoitzaren amaiera ere egonezinezko unea izaten da, ez dakizulako maleteroan sartu duzun motxila berriz handik irteten ikusiko duzun.

Baina boliviari autobusek berebiziko egoerak bizitzeko aukera ere ematen dute, begiak zabalik mantenduz gero. Gerta liteke, adibidez, esperoan daramazun denbora luzean emakume ketxuar bat hurbiltzea bere txartela erakutsiz, zer egin behar duen galdezka. Eta zuk harriduraz erantzutea, atsoak irakurtzen ez dakiela ohartu eta lotsaturik, bere nasa zein den eta erlojuaren orratzek zein posiziotan egon behar duten azaltzen diozun arte.

Gerta daiteke, baita ere, autobuseko gidari erretxindu batek ospa egitea erabakitzea, andre bat kalean utziz, eta beste bidaiariak kexatzen hastea, lehenik oihu bat, gero beste bat, azkenik guztien artean autobusa geldiarazi arte. Hori bai, kalean gelditu dena zu ere izan zaitezke: zu eta beste sei lagun...

Eta azkenik, gerta liteke 3 orduko biadia batean, aldamenean daukazun etxeoandrea etengabe mezuak jaso eta bidaltzen aritzea, PI-PI, PI-PI, PI-PI. Horrelakoetan nahikoa da begiratu labur bat bere erantzuna ikusi eta ipuin propioak asmatzen hasteko:

"Badakit maite nautzula, baina zer gertatuko da nire bizitzarekin eta nire seme-alabekin?"

67

Boliviari ez dugu supermerkatuak ikusi. Kaleak bihurtu dituzte merkatu (Oruron batez ere) eta ez dago konpetentzia egitera ausartzen den Eroskirik.

68

4.000 metro eta gehiagoko paraje lehor hauetan apenas aurki daitezkeen landaredirik edo guretzat ezaguna den animaliarik. Usoak bai. Herri guztietako plazetako animalia saltarin, gris eta ugariak edozein baldintzetara ohitzen dira. Arratoiak bezala.

69

Gure bidaia (hemengo bizitzaren ikuspegia bezala) ziklikoa da. Badakigu ez gatzela betirako, ez dugula hiri zoro eta pobretu hauetan egun jakin batzuk baino gehiago egingo. Bagatoz eta bagoaz. Horregatik pentsatzen dugu askotan itzuleran. Areago, itzuleran pentsatzen egiten dugu bidaia osoa. Guretzat benetako bizitza han hasten delako.

### **Aberatsa denaren lotsa**

Bidea, enborra luzatzen joan den neurrian adaska berri bat sortu eta mendebalderantz begira jarri da. Haren punttako bi loretxoak La Pazera etorri dira bake bila, Oruro giza inurritegitik ihesi. Baina La Pazen ez da bakerik: jendea etorbide zabaletan sakabanaturik dagoen arren, trafikoak beti bezain kaotiko eta zaratsatu darrai. Gainera, boliviarrak parrandazale-fama galanta dute, eta egun hauetan badute zer ospatu: hiriak Espainiarengandiko askatasuna lortu zueneko 200. urteurrena.

Gertaera seinalatua zinez, baina benetako boliviarrak, bertakoek, askatasuneraino bide luzea dute oraindik aurretik, euren buruetatik hasita: aktu politikoetan eta Evoren dsikurtsoen aurrean izan ezik, lotsatu egiten dira euren izaeraz, indigena izateaz:

hizkuntza propioan hitz egitera animatzen dituzunean elkarri barre egiten diote, zerbait erridikulua bailitz.

Kosmobisioaren diskurtsua oso landua dute, baina inork ez dio hurrengo belaunaldiari ketxueraz hitz egiten, ez bere hizkuntzan pentsatzen... Euren aberastasun guztia galtzear daude, eta hala ere lotsatu egiten dira.

70

Orain 3 eta 4 urte Kolonbian izan nintzen. Bi udaz jarraian. Oruron gaudela Bogotako antropologo gazte batekin egin dugu topo. Galdetu diot nola dauden gaur egun Kolonbian: beldurtuta erantzun dit, gero eta okerrago. Ekuador, Venezuela, Bolivian zeuden base militar estatu batuarrak Kolonbiara eramane dituzte, hauteskundeetan iruzurra da nagusi, auzoetan gaueko 10etatik aurrera etxeratze agindua dute ezarria, gero eta gehiago hazten ari dira hiriak nekazari herrietatik desplazatzen dituzten familiekin, abokatu, ikasle kazetari sindikalistak mehatxupean daude eta dena, dena demokraziaren izenean eta AEBn babespean (aupa Obama!). Minez oroitu ditut Kolonbian egin nituen 2 udak. Minez irakurri dut gaur prentsan soldadu kolonbiarrak eramango dituztela Afganistanera, mundua Kolonbia bihurtzeko ahaleginean!

71

Kolonbiarrarekin batera Ekuadorreko gazte bat ere ezagutu genuen. Diskurtso eder eta iraultzailekoa. Quitukoa zen, ketxuek "o" ez dutelako ahoskatzen. Ketxuaberria zen. Alegia, ketxua etxetik kanpo AEKn ikasia.

Kexu zen Quitu hiriaren fundazio eguntzat espainiarrak iritsi zireneko eguna hartzea, aurretik ere Quitun jendea bizi zenean. Jende haren aztarnategiak okupatu zituzten eta kontzertuak eman ustezko fundazio egun horretan, salaketa gisa. Iraultza musika metalaren eta hip-hoparen inguruan egin nahi zutelako, mugimendu anarkista eta komunista konpajinatuz. Entzuten ez diren eta ezagutu beharreko lan modu ugari badira munduan.

72

Zer gertatu zitzagun asteazken ilunabar hartan, oporraldiak elkar paseatzeko diseinatu genituenean! Zein sugek egin zigun horzka, zein deabruk madarikatu oheko beroa laba bihurtzeko!

### **Aberat\$ denaren lotsa hipokrita**

Pozik gabilta Boliviatik, harro: MasterCarda eta boliviarrak baten hileko soldataren hirukoitza patrikan, dendaz denda gabilta kalkuluak egiten, eurotan zenbat aterako, ongi baitakigu erantzuna sorpresa atsegina izango dela. Eta prezio, soldata hauek horren baxuak izatea iraingarria dela komentatzen badugu ere, inork ez du txartelean dioena baino gehiago ordaindu nahi...

73

Hitz egin liteke hizkuntzen galera eta berreskurapen prozesuez, hitz egin hezkuntzako ereduaz, hitz egin arduraz, alarmaz eta esperantzaz. Baina alfer-alferrik arituko gara bizi nahirik ez bada. Galdera hau da: nola sortu hizkuntza txiki eta kultura gutxituetan bizitzeko nahia mundu gero eta homogeen eta globalizatuagoan?

74

Oruron izan garen lau egunetan egunero ikusentzun ditugu desfileak. Itxuraz eskolaren baten urteurrena ospatzen ari ziren eta gaur bai, bihar ere bai ateratzen ziren kalera militarren erritmoko eta eliz kutsuko desfilea egitera.

Abuztuaren 6an Orurora etorriko omen dira Amerikako indigena gehienak. Desfile bat egitera. Militarrekin. Deitu ere halaxe egiten diete: parada militar e indigena. Batak bestearekin zerikusia izango balu bezala.

75

Boliviako komunetako ateak gaztelu beldurgarrietako ateak baino prekauzio gehiagorekin zabaldu behar dira. Inoiz ez da jakiten zer aurkituko den. Gauza jakina bakarra da: eserita ez dela bukatuko dela lanak egiten. Egin behar dena egin behar dela.

76

Bikoteek zail dute taldean ibiltzen bikotez osatutako giroan ez bada. Egun batzuk egin ditugu eta bagoaz, 7ko taldetik bereiztuko gara, gure bidaia, gure oporrak egiteko. Kantari esan diguzue bostok balkoi batetik agur. Oruron. Bolivar kalean. Taxi bat hartzen ari ginela. Ez da argazkirik egon. Baina une hau bidaiako albumean jasoko dugu enkuadratuta.

77

Txakurrak koadrilan ibiltzen dira hiriotan. Katerik gabe, errepideetan trafiko seinalerik errespetatu gabe, espaloietako basura poltsetan usmaka. Izan ere, hemen auto gutxi ikusten da, hirietako autobus tiki sorta amaigabea ez bada.

Herri txikienetan ere autobus geltokiek protagonismo berezia hartzen dute herriko bizitzan, merkatu eta plazekin batera.

78

Hiri ezezagun batera iritsi eta inor ezagutu ezean, Lonely Planeta bihurtzen da europarrontzat gida fidagarri bakar. Taberna, leku, jantoki, lotoki eta historiari buruzko erreferentzia eta aipamen ugari dago osatua liburua. Guri dena sinistea dagokigu. Benetan egiatan ari den jakiteko gure herriari buruzko Lonely Planeta irakurtzea litzateke aukera bat. Zer ote dio Zarautzi buruz, zein jatetxe, pasealeku eta lotoki proposatzen ote ditu. Areago, Euskal Herriari aipamenik egiten al dio? Eta gure historiari?

79

La Pazera heltzear. El Alto pasa eta etxola marroi milimetroz mukurua betetako sakonune erraldoia dakusagu. Illinami, harkaitz mendi elurtua agintari. Harridurak jota egin dugu beherainoko bidea. La Paz zentroa behean dagoelako. La Paz. Ederra izena. Armonia jarriko niokeen nik, jarriko zioketen bertakoek. Nahiago dutelako armonia bakea baino, mugimendua gelditasuna baino, oreka isiltasuna baino. Armonia bila gatzoguz La Pazera.

80

Baina La Pazen ez dago ez armonia, ez bake. Autoak dendak poliziak aldapak saltzaileak enpanadak erosleak... eta tartean gu. Erosletan erosleen. Dena merke dagoenaren irudipenez. Eta halaxe erori gara tentazioan lehen pasean. Azken bi egunetan egin asmo genituen erosketetako batzuk kolpera egin ditugu. Dena irudituz gaizto polit. Dena merke. Baina segidan joan behar izan dugu dirua ateratzera kajero automatikora.

81

Igandea La Pazen. 200. urteurrena ari dira ospatzen. Libre direlako orain 200 urtetatik. Eurek ere badakite gezurra dela hori, kale guztiak argi eta letreroz bete arren libre direla esanez. Baina bolibiartasuna indartzeko baliagarri izan dakieke, euren buruarengan sinesten hasteko, "aurrera doan herria" izateko.

Hori dela bide, kale printzipala kontzertu, salmenta postu, antzerki eta dantza ikuskizunez zegoen betea. Eta gu biktima izan gara, lapurreta saiakera baten biktima. Motxiletatik lapurtzen saiatu direlako 2 neska gazte poltsikoetako kremaierak irekiz paseoan genbiltzala. Eurei egindako lapurreten mendeku txiki bat izan zitekeen, 200 urteren ondoren guri egina.

82

Jatordu ederra egin liteke Bolivian euro bakarrarekin: berdura zopa, arroza, oilasko izterra, patatak... Iluntzetan ordea beldur gehiago izaten da edozein jatetxetan sartzeko eta zentroko, eta itxuraz seguruenak diren jatetxeetara joaten gara 4 edo 5 eurotan afaltzera. Irtetea seinalatua zarenaren sentsazioa duzu. Jatetxe horretatik atera zarela astelehen buruzuri batean. Eta beldur zara, diana perfektoa bazina bezala. Taxi bat hartuko zenuke kale kantoi eta metro karratu bakoitzean 3 polizia egongo ez balira. Hainbeste mespretxatzen dugun polizia, salbatzaile bihurtzen zaigu sarri.

83

Jendeari zapata garbitzen gaztetxo ugari ibiltzen da ziudadean. Aurpegia estalita izaten dute denek. Enkaputxatuta. Desohoreari bizkarra eman nahiko baliote bezala.

84

Bolivian ere badaude Europak. Jatetxe-taberna dotoreak, kale txukunak, eraikin galai eta musika elektronikodun museoak. Gaur parentesi bat egin dugu.

85

Esan liteke denbora asko egingo dugula Bolivian. Hilabete pasatxo. Esan liteke denbora asko ez dugula egingo. Hilabete eskas. Denbora honetan ezagutuko ditugun lekuak asko izango dira, baina ez dugu Boliviarik ezagutuko ez boliviarrik benetan. Atzerritarrok ordaindu behar dugun peaje eternoa da hori.

### **Mila irudik ere ez**

Inoizko gaurik argitsuena eskaini digu Isla del Solek, ilargi beteaz eta milioika izartxo soilik baliaturik. Izan ere, Titikaka amaiezinaren erdian ez dago ia etxerik, ia argindarririk; irlako trafiko apurra asto eta llama batzuek baino ez dute osatzen. Inken kondairak dio hementxe sortu zirela Eguzkia eta Ilargia. Isla del Solen ez dago kutsadura akustiko edo bisualik: alde guztietara zabaltzen den baretasun urdin bat baino ez, mendi elurtuz inguratua.

Ilunabarra 7 megapixeletan harrapatzen saiatu ginen, bain zein bide pobrea, argazki makinarena! Laster ohartu ginen mila irudik ere ezin dutela adierazi hemendik senti daitekeena.

86

La Pazeko zurrubilotik ihesi Titikaka lakura iritsi gara. Eguzkiaren irlan gaude, Inken inperioa sortu omen zen lurretan. Itsasuntzi ttiki batean ekarri gintuzten eta motxila astunak bizkarrean, aldapa latza igo behar izan genuen, metroz metro hankapean ikusmira edertzen zitzaigula. Gailurrean jaso genuen ezusteko harrigarria beste aldea

bistaratu genuenean. Gure hostala bi aldeak hartzen dituen lekuan dago eta gure logelatik inoizko bista ederrenak kontenpla litezke. Hementxe geratuko gara. Barruak berriro ere martxa eskatzen digun arte.

### **"One soup of quinoa, please"**

Eguzkiaren Irla orain arte ikusi dugun lekurik ederrena da, baina baita turistikoena ere: gehiago dira hemen inguruan dabilzan frantses eta estatubatuarrak, bertan bizi diren Aymarak baino. Frantsesak, gida-gidari pertsonal batekin, eta estatubatuarrak bosteko koadrila kolonizatzaileetan: munduko jaun eta jabe, Lonely Planetari, dolarrari eta ingelesari helduta sartzen dira tabernarik xumeenetara, bertakoek euren hizkuntza jakingo dutenaren ziurtasunaz, espainolez (zer esanik ez aymaraz) hitz erdi bat egiten saiatu gabe. Tabernariak, espainolez ere nahiko baldar moldatu arren, nolabait komunikatzeko ahaleginak egiten ditu, baina zerbait gaizki esanez gero barre egiten diote. Hori bai, ez dira gai kartatik "Sopa de quinoa" irakurtzeko: "A soup of quinoa" izan behar du beraiantzat.

Harrokeria ekonomikoa eta intsentsibilitate linguistikoa konbinazio txarra dira benetan.

87

Gaueko 9etarako oheratzen gara Titikakan, Eguzkiaren irlan. Behin gautzean, eguzkia sartzean ikustean lotara tentatzen du gauak izar artean.

Goizoa oheratuta, goizoa esnatu naiz gaur. 7etarako. Eta eguzkia mendi elurtuen artetik nola sortu den miraz egon naiz. Ondo egin dut lo. Ondo esnatu naiz. Alboko astoari begira geratu naiz gero, astoek gau txarririk pasatzen duten galdezka, amesgaiztorik izaten duten zalantzan. Eta esnatzean egunak ematen dien erregaloaz disfrutatzen duten galdezka. Arrantzarik ere ez dit erantzun.

### **Argentinari bat Bartzelonan**

Atzo, duela bi aste Boliviarako mugan ezagututako bi neska argentinarrekin egin genuen berriz topo, eta beraiekin egin genuen irlarainoko bidea. Mutil ingeles eta portugez bana ere gurekin etorri ziren. Euskal Herriaz galdetu zigutenean, borroka linguistikoaz hitz egin genien gehienbat: egunero borrokan jardun beharra dugula euskaraz bizi nahi badugu.

Neska batek txanponari buelta eman nahi izan zion: Bartzelonan bizi zela, leku batzuetan "kontserbadoreenek" (horrela deitzen zigun berak) ez ziotela hitz egin nahi izaten katalanez ez zekielako.

Ez nion esan berri hark poztu egin ninduela. Baina kontuak sortu zizkidan pare bat galdera: zein puntutaraino kontsideratzen da borroka, eta nondik aurrera egoskorkeria hutsa? Zein puntutaraino ari gara geure buruaren alde egiten, eta nondik aurrera geure burua ixten, komunikazioa eteten?

88

Euskal Herrira begira jarri naiz enegarrenez. Bueltakoan zer egingo. Edo orain arte bezala jarraitu, lanaz gain Arraioko irratsaioarekin, Alprojakeriatan, SKT Sekuentzia musika taldearekin, WC errezitaldiarekin eta bidean suertatzen diren enbajada guztiekin edo master bati ekitea, jakinda lana eta ikasketak baino ezingo ditudala egin, etorkizunean bide eta aukera berriak zabaltzeko, izan nahi dudana hura izanago gerta dadin. Bi aukera ditut orain: bakarrarekin joan nahi dut Titikakatik.

### **"Aky ce recargan selulares"**

Inoiz Hego Amerikara, batez ere Boliviara bazatozte, bi gauzetara ohitu beharko duzue:

1. Ikastolako 3. mailan Lengua castellana y literatura ikasgaiari buruz ikasiarazi

zizkizuten Normas ortográficas guztiek ("Todos los verbos terminados en -ir se escriben con B, excepto hervir, servir y vivir...") ez dizute piperrik balio lur hauetan. "Se cirve milanezas de pollo" bezalako kartelak guztiz normalak dira hemengo kaleetan, eta artikuluaeren izenburua ere ez da nik asmatutakoa.

2. Edozein hiritan liburudenda dezente bat topatzen, nahiko lan. Liburutegi publikorik ez dugu ikusi, eta hemen "librerías" deitzen direnak paperdenda soilak dira, katalogo literario ikaragarri eskasarekin. Gehienez ere kaleko postutxotan topa daiteke literatura apur bat, eskola-liburu mordoaren artean. Eta leku gehienetan literatura mota antzekoa izaten da: Paulo Coelho, Isabel Allende edo "Crepúsculo" delakoa. Galeano da salbatzen den bakarra.

Bi puntuak lotuta daudela pentsatzen badugu, beldur naiz hau ez ote den boliviarraren idazkera eta literaturaren ilunabarra izango...

89

Abuztuaren 6a da gaur. Boliviaren, boliviarraren eguna. Askatasuna zelebratzen ariko dira hiri eta herri gehienetan.

Titikaka lakua egunero bezala esnatu da. Zerua urdin, inguruak eder, ederregi, ederren Peru eta Boliviako lurak bustiz. Guk biak dakusagu ezker eskuin. Territorio politikoaren bereizketa zentzugabekeria insultagarriagoa da paraje hauetan.

90

Afaritan ari ginen. "Vosotros de donde sois" galdetu digunean. Vascos garela erantzun diogu. Berak bilbotarra dela eta gu hizketan entzutean aymaraz-edo ari ginela pentsatu omen du hasieran, baina gero konturatu omen da gurea beste hizkuntza bat zela.

Eta gu gure hizkuntz esperientzia aberasgarriaz mintzatzera etorri gara. Eta begira nola dugun etxea. "Agur" ere esan gabe joan da.

### **Turismoaren prostitutatxoak**

Eguzkiaren Irla ezin ederragoa da, paisaia puru, bilutsi eta basatiak ditu edonora begiratzen duzula ere. Baina honek bere alde mikatza ere badu. Munduko erlijio berri eta boteretsuena (Judaismo... Budismo... TURISMO) da hemen nagusi, eta nabari da ia komunikabiderik gabeko irlatxo hau turismoak guztiz janda dagoela. Hain errotuta dago, non mutil koskorrek eskolatik bueltan 4 orduko tour bat eskaintzen dizuten, eta 5 urteko neskatoek mesedez argazkiak ateratzeko, bi bolivianoaren truk.

Kontraste handiegia sortzen du turismoaren prostibuluak horren paisaia bare eta naturalean.

91

Bertako Aymaren uzta ez galtzeko, kazkabarrak ez pasatzeko eraikitako harri sortaren alboan, eguzkia sartzeaz, hondartza ttiki ugariak Titikakako urekin jolasean, espektakulu gorena naturarena. Eta ni, bakarrik, hura kontenplazten zoriontsua naizela pentsatzen. Oso. Eta bestela ere bai. Finean, zoriontsua naizela pentsatzen. Bizitzari eskerrak eman dizkiot zorioneko egin nauelako, paisai eder hau lekuko. Ia malkotan uzteraino.

### **Adinik gabeko herria**

Zaila da boliviarraren adina asmatzea: haur txikien amek 30 urte dituztela dirudi, eta baliteke ni baino gazteagoak izatea; kale bazterreko atsoak ez ditu 60 ere izango, eta gure amonak baino mila ximur gehiago ditu. Zazpi urteko neskatoek lanean dihardute, gurasoen tabernan edo llamari tiraka, eta heldu baten begirada gogorra darie.

Klimak, ekonomiak eta bizimodu gogorak ez die haurrei haur izatzen uzten, eta giza bizitza behar baino gehiago azkartzen du.

92

Eguzkiaren irlako neska koxkorrek bi txanpon eskatzen dituzte argazki bat eurei ateratzearren truke. Gauza bat eskubiderik gabeko herria izatea delako eta irudi eskubiderik gabeko herria bestea.

### **(In)Komunikazioa**

Tak-tak-tak-tak egiten du bazkaria prestatu eta zerbitzatu digun 15 urteko neskatilaren idazmakina zaharrak, eskolako lanak egiten ari dela. Tak-tak-tak-tak, letrak banan-banan, behatz bakarrez papereratzen dituela.

Ahizpa txikiari barregurea ematen diote makinaren soinu eta mugimendu nabarmenek; irla honetan ez dute internetik ezagutzen, ordenagailurik badagoen ere ez dakit.

Telefono batzuez salbu, inkomunikatuta bizi da Eguzkiaren Irla.

Guk 4 egun ezin ederrago pasa ditugu. Maindire artean errefuxiatuta, Titikakako hondartzetara ihesi, inkomunikatuta. Gure artean inoiz baino hobekiago komunikatuta.

### **Ilusioak opioa bezalakoak dira**

Zenbat eta une eder gehiago bizi, ohartzen naiz etorkizunerako ilusioak, aurrera egitera motibatzen gaituzten planak sortzeko beharra dugula etengabe, tristeegia delako bizitzen ari garen unea inoiz biziko dugun ederrena dela onartzea. Nahiago dugu etorkizun ilusorioarekin amestu, atzamarrekin uki dezakegun zoriontasunaz kontziente izan baino.

"Esperantza" deitzen diogu, baina malenkoniatik ihes egiteko bide bat besterik ez da.

93

Eguzkiaren irlatik La Pazera itzuli gara. Berriz egin dugu bat gainerako 5 lagunekin. La Paz kanpamendu base bihurtu dugu. Eta gaur Coroicora abiatuko gara, Boliviako lehen gune turistikora. Zoragarria da bidea. Hala diote. Autopistako peajea ordaindu arren lainoak ez digulako errepidetik metro bat bat haruntzago ikusten utzi.

### **Ezinegon egonezina... agonia hutsa**

Azken egunotan ezin lo eginik ibili naiz: ez dakit Eguzkiaren Irlatik La Pazerako aldaketa drastikoegia izan den horren kausa, edo unibertsitateko erabakiak aste honetan iritsi behar duelako, baina bakerik topatu ezinean nabil. Alde ederrean nengoan irla inkomunikatuan!

Orain Coroicora etorri gara, mendi arteko herriska batera. Baina komunikatuegia dago, lotuegia nago internetera eta etxetik jaso dezakedan edozein seinalelara. Eskerrak hotel ederra hartu dugun, inguru are ederragoan (altiplanotik jaitsi gara behingoz; platanondo eta koka-plantaziozko inguru exotiko eta teoriar epelagoetara); biharko 4 orduko zaldi-bueltak kenduko ahal dizkit kezka denboraldi baterako!

94

Lehen gune turistikoa. Boliviakoa. Coroico. Iritsi berritan inpresio tristea. Asfaltatu gabeko bidean egin ditugu azken kilometroak. Plaza kaleetan betiko anabasa boliviarra: merkatu, kamioi, ikasle, agure... denak batean koadro bakarrean, bakoitza bere pertsonaia justifikatzen.

Bi egunetara beste paradisu bat deskubritu dugulakoan gaude, batez ere hasierako lainoek piskanaka lurra bere biluztasun berdean agerian utzi dutenean.

## Hobbiten antzera

Tolkienen liburuetatik oroitzen dudan paisaia da Coroicon goizetan esnatzen gaituena: behe-laino zurrun bat mendi elurtuen artetik ezkututzen, landaredi lodi eta aberatsezko haran ikusgarriei bidea zabaltzen diena eguzkiak kuku egin ahala. Gondorren eta Hobbiten Lurraldean banana-, kafe- eta koka-plantaziorik imajinatzen ez banuen ere, sentitu naiz apur bat Eraztunaren Konpainiaren partaide, arratsaldea bertako bidezidor zahar zein oraindik asmatu beharrekotan zehar trostan ibili garenean. Mundiala!

95

*Borracho estaba, pero me acuerdo.* Victor Hugo Viscarra lapaztarraren liburu zintzoa hiriko bizimodu krudelaren testigantza jasotzen. Non egiten dute lo hiriko kaleetan bizi direnek? Nola bizirauten dute ia 4.000 metrotako hotz burdinezkoa? Zeren bila ari dira basura poltsetan zersuma dabiltzanak? Bizitza madarikatuaren kronika Viscarrarena.

96

Coroicon zaldiz ibili ginen. Reinaldorekin. 2 seme-alaben aita, 50 bat urterekin 15 urte inguruko neska batekin oheratu eta aita izana zen hirugarrenez. Aurreko familia eta ohorea galdu zituen ordutik.

Bakarrik bizi zen harrez gero. Bere etxola zahar eta zikinean 10 zaldirekin bakarrik. Zaldi buelta amaitzean halaxe esan zidan: ikusten Imanol! Etxera itzuli eta ez dut inor kaixo edo zermoduz eguna galdetzen didanik. Bakardadea oinutsik ibiltzen da Bolivian ere.

## Reinaldo

Herenegun mendi-buelta gurekin egin zuen zaldi-jabearen izena da. Reinaldo. 58 urte izatez, 40 itxuraz. Hasieran isila bazirudien ere, bere etxola-inguruetatik atera bezain pronto hasi zitzaigun bere istorioa kontatzen: duela hiru urte emaztea eta bi seme-alaba utzi zituela 15 urteko neska batekin harreman bat hasi zuelako; gero honek adarrak jarri zizkiola eta horregatik berarekin nazkatuta zegoela, baina harremana nolabait mantentzen zuela euren urte eta erdiko alabarengatik, eta irailean jaiotzekoa den bigarren haurragatik...

Imanoli aholku bat eman zion: ez zezala harremanik izan neska gazte batekin. Nik 22 urte nituela esan nion.

97

Munduko errepiderik arriskutsuena Bolivian omen dago eta *El camino de la muerte* deitzen diote. La Pazetik Coroicora bidean dago. Guk urrutian ikusi dugu Herioren bidea eta pentsatu (Coroicora iristen behelainotan pasa ditugun estuasunen ondoren) Herio errepideetan baino bolantean aritzen dela gehiegiegitan bizitzarekin lardaskan.

## Soratan zoratzen

2009. 08. 16.

Beste txoko eder eta bare bat topatu dugu Illanpu menditzarraren (6000 m) magalean: Sorata. Herriak ilibaldi eguzkitsuak, txori kantariak eta herriko plazako giro atsegina eskaintzen du. La Paz zatatsurako itzulera ahal bezainbeste atzeratu nahian, hemengo egonaldia gehixeago luzatuko dugu, baina eginahalak egin, ezin izango dugu gero eta gertuago dugun etxerako buelta saihestu: datorren ostegunean, hilaren 20an hartuko dugu La Pazetik Buenos Aireserako hegazkina (Buenos Aires. Zein urruti gelditzen zaidan!), eta hiru egun beranduago Euskal Herrirakoa (nire egutegia jakin



dezazuen: 23an aterako gara Argentinatik... 24 gauean iritsiko gara Bilbora... 26an izango naiz pertsona berriz).

Horren bidaiak luzeetan normala izaten den bezala, bueltatu aurreko azken egunetan gehiago daukagu burua etxean bidaiari baino; nik neuk ere lau zerrenda desberdin prestatuak ditut hurrengo asteetara begira: egin beharrekoak, norekin egon, zer jan eta Berlingo unibertsitateko kalabazak ahazteko motibatuko nauten gauzak.

Eta iada badut etxera itzultzeko gogo.

98

Azken egunak. Azken egunak Bolivian. Soratara heldu gara gaur, Illinamiren anai-arrebaren, Illampu menditzarraren magalera. Azken egun lasaiak biziko ditugu hemen: lur eguzkitsu, berde eta geldo hauetan atsedenean.

Gustura ibiliko gara hemen, egunari probetxu handiagoa atera nahian, batez ere atsedean hau amaituko zaigula jakinda Soratetik, Boliviatik bueltan. Gaur etxekoekin hitz egin dugu eta etxekoen epelera, gure betiko bizimodura itzultzeko gogo handitu zaigu. Hanka bat putzuz bestaldera dugu dagoeneko.

### 2003ko blokeoa

XXI. mendea garai modernoa dela iruditzen zaigu askori: gerrak-eta aurreko mendeko kontuak direla, gure existentziaz lehendiko zerbait. 90. hamarkadan jaiotako europar zibilizatu eta baketsuok gerrak telebistatik baino ez ditu ezagutu nahi.

Baina Bolivian lurra sutan dago oraindik, gerra etengabea da, eta ezin dituzte 500 urtetako zauriak sendatu, behin eta berriz irekitzen dizkiegulako, eta tarteka gatza bota ere bai: Soratako haurrak oraindik oroitzen dira, esaterako, 2003an herria bost astez nola itxi zuten, nola sartu ziren militarrek kanpotarrak bertatik ateratzeko, eta helikopteretatik herritarrak nola tirokatu zituzten...

Pelikula bat dirudi hostaleko jabeak kontatzen diguna. Baina gu gauden lekuan gertatu zen. Duela 6 urte ere ez.

99

La Pazeko zurrumbilo erotik ihesi Soratan sosegua topatu dugu eta egonaldia luzatu. 3 egun oso egin ditugu paraje eder, lasai eta aldapatsu hauetan atsedenean. Bihar La Pazera itzuliko gara eta bi lo eginda Bolivia utziko dugu puska baterako. Eta Bolivia uztearekin hilabete pasatxoan bizitako oroitzapoenak ere gurekin eramango ditugu motxilan. Zorionez, oroimenak ez du lekurik okupatzen. Egindako opari batzuk bertan utzi beharko genituzke bestela.

100

Hara ehungarrena Buenos Airesetik. Atzo itzuli ginen La Pazetik egun osoko hegaldiaren ondoren, 3 eskala eginda. Oraintxe ohartu gara atzean utzi dugunaz. Buenos Aireseko trafikoa ordenatuegia iruditu zaigu, kale etorbideak garbiak, janzkera eta jendeak etxeko... Boliviarekin alderatuta. Bolivia bakarra baita eta europak asko. Asteburua dugu aurretik orain. Eta praktikan bizitza europarra egingo dugu: erosketak egitera merkatura goaz gero, etxean bazkalduko dugu eta iluntzean antzerki obra bat ikustera irtengo gara. Gaur ostirala, bihar larunbata eta igandean 21:00etan hartuko dugu itzulerako abioia. 101. ABA izango da azkena. Hortik aurrerakoak etxetik idatziko ditugu. Berriz.

## 2009. 08. 22. - Azken eguna

Larunbat eguerdia hiriburu argentinarrean. Diegoren sukaldean gaude eserita, isilik gosaltzen, bakoitza bere mundua esnatzen. Bart iluntzean antzezlan bat ikusi genuen aspaldiko partez, eta bueltako bidean jada etxean bageunde bezala sentitu ginen: Boliviak geroztik, guztia ezaguna eta etxekoa egiten zaigu. Buenos Aires egon zitekeen European ere.

Gustura nago. Asetuta. Bihar batere nagikeria edo malenkoniarik gabe hartuko dut bueltako hegazkina, etxera itzultzeaz pozik; bidaia baten unerik ederrenetariko bat baita etxerako itzulera.

101

Azken eguna, azken testua. Gaur iluntzean hartuko dugu hegazkina Bilbo aldera eta bihar iluntzean helduko gara, astelehenarekin. Amaitu dira bidaiak. Iraila iritsi arteko astea, lanean hasi aurrekoa, kontzientziazte lanak egiteko izango da. Eta etxekoekin egotekoa, lagunekin... Balorazioak han egingo ditugu. Abisu bat eman nahi dugu ordea: gerra emateko gogoz itzuliko gara 27zapata eta [Samstagexpressa](#)! Oraintxe arte!